

Julene Azpeitia

Ipuin Lehiaketa, 1989. Urtea



AURKIBIDEA

HITZAURREA	2
Pilar Ardanza Uribarren, Alkatea	

IPUINAK

TXOLINTXU ETA OTSOA	4
Nora Toribio Aroma	
MIKEL ETA ITSAS NESKA	8
Ainara Azula Garate	
BIZITZA EZBERDIN BAT	10
Miren Castillo Aranburu	
OINETAKO BEREZIAK	13
Javier Oteiza Larrechea	
IPUIN ZORAGARRIA	16
Ianire Abendibar Telleria	
TXIRRI ETA TXEPEREN IDEIA	19
Gorka Garcia Ariño	
ITSAS GAZIA	21
Eneritz Gorrotxategi Caballero	
NIRE PENTSAKERETAN	24
Irene Jaio Barazar	

HITZAURREA

Durangarrok, agur t'ardi:

JULENE AZPEITIA 1989 IPUIN LEHIAKETAKo lanak argitaratzeko ordua heldu den honetan ene eskerrik beroena luzatu nahi diet lehiaketaren azken edizio honetan partaide izan diren guztiei: Maisu-maistrei eta, batez ere, umeei.

Durangoko Udalak eraturiko ekintza honetan nahita ezkoa suertatzen da batzuen zein bestean partaidetza, eta beraz oraingoan bezala, gogoz eta ilusioz hornituta badago, hainbat hobe!

Horrela bada, zorionik beroenak egileei eta aurrerantzean ere ekiozue euskeraren aldeko edozein eratako ihardunbideri.

Liburuxka honetan zortzi ipuin aurkituko dituzue irakurgai: lau ipuin irabazle eta lau akzesit.

Imanol Larrinaga durangarrak prestaturiko marrazki paregabeek atondu egiten dute berez ederra den idatzizko emaitza hau. Osagarri guzti hauekin irakurketa atsegina egingo zaizuela espero dut zinez.

Luzamendutan erortzeko asmorik ez dudanez hauxe besterik ez dizuet gaineratuko aholku gisa: Pasa ezazue lehen orrialde hauek eta merezi duten arretaz irakur itzazue ondorengo ipuinok.

Hurrengora arte.

*PILAR ARDANZA URIBARREN
Durangoko Alkatesa*

Nora Toribio Aroma Balier

5. Mailako irabazlea

Santa Rita Ikastetxea

TXOLINTXU ETA OTSOA

Behinola, Gorbeipeko baserri baten sendi polit bat bizi zan; aita Praisko, Mainton ama eta bi umetxo: bata Antolin -etxean Txolintxu deitzen eutsien- eta bestea Nekanetxo.

Aita ikazkina zan eta asteko egun gehienak basoan igaroten ebazan. Amak, barriz, baserriko lanak egiten ebazan. Umetxoak ere, ahal eben neurrian laguntzen eutsien.

Txolintxu txori zalea zan eta libre eukazan ordu guztiak txori-habiak topatzen emoten ebazan. Baekian berak, bai, zelakoak ziran txindorraren eta biregarroaren arraultzak.

Egun baten, habi bila joan eta joan egin zan, konturatu barik gaua gainean egoala, eta halako batean kukuaren eguneko azken agurra entzun eban.

- Ene! non nago?

Eta erantzunak berriro ere "kuku-kuku"... Mutila ez zan bape bildurtia eta bere artean hauxe iñoan:

- Gorbeipeko haitzen baten ondoan nago bai eta, zelan edo halan, hemen igaroko dot gaua.

Bere ama estututa egongo zala ere burura etorri jakon, baina hain egoan ilun gau horretan! ezin ezer egin.

Haitzpe baten sartu eta biribil-biribil eginda gelditu zan, begi bat zabalik eta bestea itxita eukazala.

- Auuuuuuu!

Bera ixilik. Handik lasterrera, orain handiagoa.

- Auuuuuuuuu!

Zutundu egin zan berealaxe eta, oihu hori zer zan edo nondik etorren jakiteko, haitz gainera igon eban. Baina zutunik egoan bitartean ez zan ezer entzuten.

- Ze arraio! -esan eban-, hemen gitxienez, gitxienez ... Anbotoko Anderea dago. Or Konpon! eta barriro etzun zan.

Bost minutu ez eban egingo etzunda, barriro lehengo oihu bardina, baina orain urrago.

Ixilik egon ezin eta bera ere oihu berbera egiten hasi zan. Halan egon ziran une batean: Batak, auuuuuuu!; eta besteak ere, auuuuuuu!

Azkenean, iluntasunaren erdian, gauza baltz bat agertu zan. Bildurra kolkoan sartu, eskuetan makila hartu eta hauxe esan eutson bere buruari:

- Bakean bazatoz ondo hartuko zaituk, baina ... ai txarkeriaren bat badago zure buruan!

Hurreratu eta, PLAUS!, bere oinetan jausi jakon. Zer zan? Ule baltzeko otsokume zauritua, erdi hilik. Jaka baltz zaharra erantzi eta gainetik ipini eutson. Gero, txu apur bat az eta sudur-zapiaz anka zauritua garbitu eutson. Eta azkenean, abesti polit hau ere abestu eutson:

*Otsoa, nire otsotxo,
berotu zure muzturtxo.
Gorbeipean gagoz biok,
zabaldu zure begiok.*

Abestia entzunagaz batera, begiak zabaldu eta Txolintxuri eskuak lastantzen hasi jakon. Azkenean, olgetan hainbat denpora egin eta gero, loak hartu ebazan.

Eguzkia Gorbeia tontorretik urteten hasi zanean, Txolintxuren begi dirdiratsuak argiz bete ziran eta, bapatean, zutundu egin zan. Otsotxo ikusi eta etxean ez egoala konturatu zan. Gero haitz gainera igon eban, non egoan jakiteko.

- Ene! badakit orain non nagoan: Ospelarra gainean. Txistu bat egin eta amak entzungo deust, eta horrela lasai egongo da.

Pentsautakoa egin eta halan jazo ere. Berehala, amak beste txistu bategaz erantzun eutson.

- Orain amak badaki non nagoan bai. Orain, otsokume horren ama bilatu behar dot.

Otsokumea lepoan hartu eta han joian pagadi, leizar eta mendiko beste zugaitz artetik eta, halako batean:

- Ene ama! zelako zuloa!

Otsokumea lurrean itzi eta zulo hortan zer egoan ikustera joan zan, eta ...

- Ene bada!

Barruan otso ama egoan, hilda. Kaskabarra gainera jausi eta bertan hil zen.

- Orain nago ni ona! etxera eroan beharko dot otsokumea. Pentsatu eta egin.

Eguerdiko hamabietarako heldu ziran baserrira Txolintxu eta otsokumea. Ama eta Nekane aurpegi alaiz zeuden, batez ere Nekanetxo.

- Zer izen ipiniko deusogu, Txolintxu?

- Ba ... "Aginandi" edo, bestela, "Belarrioker".

- Ez, ez, horreik ez -erantzun Nekanetxok-.
- Berez agertutakoa da bai eta BEREZ izango da.

"Berez" gelditu jakon izentzat. Etxekotzat hartu genuen guztiok. Txolintxu eta Nekanetxogaz olgetan eban egunero, txio-txioka, saku-arineketetan eta beste jolas askotan.

Sarritan txoriak uxatzen eutsozan Txolintxuri, baina hain polita zan ... beti parkatu behar.

Egunak joan, egunak etorri, otsoa haundia egin zan eta haurtxoak ere bai.

Praisko eta Mainton, atso-aguretuta, sutondo baztarrean egoten ziran, artoak garandu, goruetan, eta bestelako zereginetan.

Txolintxu, aitaren lana jarraitu behar ebala eta, ikazkin egin zan.

Egun baten, basoan egoala, aize bolada haundi bat atara eta zugaitz itzel bat jausi jakon gainera. Bera bakarrik egoan, beno, bakarrik ez, han egoan "Berez" ere.

"Berez" oihuka hasi zan eta han etorri ziran bere osaba, izeko, eta sendi guztia. Danen artean zugaitz hori gaineratik kendu eutsien eta Txolintxuk, pozaren pozez, zerura begiratu ebanean, hauxe irakurri eban lainoetan:

*Atzo zuk, gaur nik,
ondo eginak
ez dauka zigorrik.*

Ainara Azula Garate

5. mailako akzesita

Maria Goretti Ikastetxea

MIKEL ETA ITSAS NESKA

Bazan behin herri txiki bat, itsas ondoan egoana. Han esaten eben lez, itsasoan itsas neska bat egoan txirla baten preso.

Behin gizon batek entzundakoa egiaztatu nahi eban eta itsasora joan zan.

Bi egun emon ebazan itsas barruan, txirla guztiak begiratzen, eta ez ezban ezer ere aurkitu.

Itsasotik urten eban. Oso nekatuta egoan. Bapatean ondartzan agure zahar bat aurkitu zuen. Mikel zan beronen izena. Agurearengana hurbildu eta hauxe esan eutson:

- Aizu agure, badakizu non dagoen itsas neska? Bila ta bila ibili naiz itsasoan zehar eta ez dot aurkitu.

Agureak ha entzunaz begiak zabaldu ebazan eta ixilik geratu zan denbora baten. Halako baten zera esan eutson Mikeli:

- Edozein tokitara joango zara bere bila? Oso arriskutsua da.

- Beno, baina esango deustazu behingoz non dagoen. -esan eutson gizonak-.

Eta agureak:

- Itsas barruan, zulo haundi bat dago bertan. Sartu barrura eta zulo horretan beruntz joan zaitez, itsas zaldi bat ikusi arte. Berak esango deustu non dagoen txirla hori. Bertara joan eta han bilatuko duzu itsas neska.

Gizona denbora galdu barik uretara joan zan. Uger ta uger egin ondoren zuloa aurkitu eban. Beruntz joan zan. Itsas zaldi bat aurkitu eban eta berari jarraituz txirla bat topatu eban. Labaina bat atera eta txirla zabaltzen hasi zan. Bi ordu emon ebazan zeregin horretan eta azkenean ireki eban. Itsas neska poltsa baten barruan egoan. Mikelek besotik hartu eta gorantz eroan eban. Itsasotik urten ziranean itsas neska itzartu egin zan eta barrezka hasi jakon Mikeli.

Mikel eta itsas neska ezkondu egin ziran eta lau ume euki ebiezan.

Euren etxea itsasoan dago. Mikel itsas mutila bihurtu da eta oso pozik bizi dira biak.

Miren Castillo Aranburu

6. mailako irabazlea

Maiztegi Herri Eskola

BIZITZA EZBERDIN BAT

Gaur ostirala denez, azokara joan naiz liburu bat erostera eta bide batez iratzargailu txiki bat erosi dut, etxekoa bi zatitan puskatu bait da.

Liburu asko ikusi dut, baina haietatik gehien gustatu zaidana "erlojutxo" izenburuaz zetorrena izan da. Beraz, hura erosi ondoren, iratzargailuen dendara hurbildu eta begirada bat bota dut. Denak berdin xamarak iruditu zaizkit, baina han, denen atzean izkutaturik, erloju ezberdin bat ikusi dut. Besteak bezalakoa zen kolorez, itxuraz eta prezioz, baina hala ere, bazuen bitxitasun bat eta hura erosi dut.

Etixerako bidean, "erlojutxo" liburua irakurtzen hasi naiz eta oso interesgarria iruditu zait.

Etxean, erlojua bere tokian utzi ondoren, irakurtzen jarraitzeari ekin diot. Horrela zioen ipuinak:

"Bazen behin, orain dela urte pare bat, etxe zahar batetan bizi zen erlojua. Ez pentsa zuek beti ezagutu dituzuenen bezalakoa zenik. Ez horixe! hura erloju arraro bat zen. Bere orratzen mugimendua bihotz taupadak bezalakoxeak izaten ziren."

- Tik tak, tik tak, ...

"Batzuetan, hitz egingo bazuen bezala entzuten zen bere marmar hotsa eta jendeak esaten zuenez, hura, bizia zuen erlojua zen."

Ni erabat txunditurik gelditu naiz liburua irakurtzean, baina hala ere, beste alde batetik, tontakeria bat iruditu zait. Nola biziko dira ba erlojuak?

Aulkitik jaiki eta ur basu baten bila joan naiz. Zurrutada bat edan ondoren, ohean etzan eta irakurtzen jarraitu dut.

"Behin etxeko jabeak bidai bat egitera joan zirenean erlojua bakarrik gelditu zen etxean. Bera oso triste sentitzen zen bakar-bakarrik eta, denbora igaroz zihoan heinean, gero eta gaizkiago aurkitzen zen. Egunak, asteak eta hilak igaro ziren baina erlojua ahultzen zihoan pixkanaka-pixkanaka. Azkenean, bakartasun hura jasan ezinik, han hil zen, negar malkoen artean.

Jabeak handik bi egunetara iritsi ziren eta erlojua gelditurik ikustean, pilak aldatu zizkieten. Hala ere, berdin jarraitzen zuen eta zaborrontzira bota zuten. Orain erlojua hilik dago eta inork ezin du berpiztu."

Irakurtzen amaitu dut eta ahozabalik gelditu naiz hain istorio polita irakurtzean. Baina, hala ere, ez dut sinestu.

Laisterka abiatu naiz nire iratzargailuarengana eta oso ondo zebilela ikusi dut.

Egunak badoaz aurrera eta egunero nire iratzargailuari so egiten diot, ondorio honetara heldu naizelarik: nire erlojua zahartzen ari da.

Segituan pentsatu dut ipuinean, baina bertan gertatzen dena gertatzea ezinezkoa dela badakit. Arratsaldean orratzak polikiago mugitzen zirela konturatzean, oso kezkatuik joan naiz ikastolara eta gauean etxera itzultzean, erlojuko orratzak geldirik ikusi ditut. Asko tristetu nau honek eta pila berriak jarri dizkiot, torlojuak aldatu eta koipeztu egin ditut. Baina hala ere, berdin jarraitu du. Hilik dago.

Orduan bai, orduan konturatu naiz ipuina egia zela eta tristuraz beterik, erlojua gorde egin dut. Orain badakit erlojuek ere -beste gauza askoren antzera- bizia daukatela.

Javier Oteiza Larrechea

6. Mailako akzesita

Maria Goretti Ikastetxea

OINETAKO BEREZIAK

Herri baten bazan oinetako denda bat. Denda horretara ez zan inor oinetakoak eroatera joaten. Dendaria oso zaharra zan. Egun baten berarentzat oinetakoak egitea bururatu jakon.

Herri haretan ez egoan makinarik eta zapatalariak eskuz egiten ebazan oinetakook. Lan hau ez zan bape erraza, orratza eta mailua ebali behar ziralako batez be.

Lehenengo egunean materiala prestatu eta josten hasi zan. Bigarren egunean amaitu eban jostaketa lanekin. Hirugarren egunean untzeak ipini ebazan. Hurrengo eguna domeka zan eta mezara joateko oinetako berriak ipini ebazan. Herriko jendea harriturik geratu zan, zeozer arraroa ikusten eben zapatalariaren oinetakoetan. Meza amaitu ondoren zapatalaria etzerantza abiatu zan. Etxera heldu zanean oinetako batek zera esan eban:

- Nekatuta nengoen hainbeste pisu eroaten, ezta horrela anaia?

- Bai, ni ere nekatuta nengoean. -esan eban beste oinetakoak-

- Nork esan dau hori? -galdetu neban nik-

- Gu izan gara. -erantzun eben oinetakook- zergatik galdetzen dozu hori?

Zapatalaria harritura geratu zan oso.

- Eta, zu nor zara? -galdetu oinetakook-

- Ni zapatalaria naiz.

- Zergaitik zagoz hain goibel?

- Begira, nik denda bat daukat, baina inor ez da joaten oinetakoak eroatera.

Orduan oinetako batek hauxe esan eutson:

- Badakit zelan konpondu hori. Zuk gu bezalako oinetako batzuk egizuz eta iragarki bat ipini gero dendako leihoan.

Zapatalariak horixe egin eban, eta iragarki hau jarri ere:

Hitz egiten dabezan

oinetakoak

saltzen dodaz.

Irakurri eben jende guztiak dendara hurbildu ziran eta andra batek zera esan eban:

- Erakutsidazuz oinetako horiek.

Zapatalariak mahai gainera atera eta hauxe esan eban:

- Oinetako!, esan zeozer

- Egunon andra.

Hortik aurrera herria famatua egin zan. Zapatalariaren denda jendez beterik egoan beti. Horregaitik gure zapataria oso pozik bizi da.

Ianire Abendibar Telleria

7. Mailako irabazlea

Maria Goretti Ikastetxea

IPUIN ZORAGARRIA

Udako egun zoragarri baten Jone eta Amaia bere lagunmina mundu zoragarri batetara barruratu ziran. Jone eta Amaia Udaten bizi ziran eta honakoak ziran:

Jone: neskato argia, hile beltza, 6 urtekoa eta alaia.

Amaia: Diruduna, oso alaia, liraina eta bildurtia, 6 urtekoa.

Dena hasi zan Jone eta Amaia "Ilapurti"ko basora abiatu ziranean. Basora heldu eta Jone kobazulo batetara barruratu zan, gure Amaia beldurtia, nola ez, Joneren eskutik hartuta, dardaraka hasi zan. Amaia negarrez hasteko zanean ispilu bat agertu zan aurrez-aurre. Beren hegalak diamantez beterik egozan, eta barnekaldetik abots fin eta gaztea entzuten zan.

- Sartu neskak, sartu. -esan eban abots misterioitsuak-

Jone eta Amaia ispilura barruratu ziran eta, orduan, mundu zoragarri batetan aurkitu ziran. Egun hartan jai eguna zan mundu zoragarrian, "Iratxoen egun nagusia". Jai hau Misiliano Gaiziratxo'ren oroimenez egiten zan. Hau zala eta inor ez ez ohartu bi neskatoen presentziaz. Beno, den-denak ez, han egoan iratxo txiki bat konturatu zan. Iratxo honek Termopilak eukan izena. Termopilak iratxo neska bat zan, oso ederra, begi orlegiekin eta ezpain gorriak eta distiratsuak. Termopilak Jone eta Amaia ikusi ebazanean, harrituta, oihuka hasi zan:

- Iratxook, Iratxook! Ikusi dozue inoiz erraldoi bat? orain daukazu aukera. Begira, begira zelako haundiak diren! inoiz ikusibakoa! zoragarria! etorri, etorri!

Amaia, bildurtuta, negarrez hasi zan, baina Jonek trankil egoteko esan eutson:

- Lasaitu Amaia, lasaitu, ez dozu ikusten panpinak direla? zu bai beldurtia, ez nekian holako zinela.

Jonek hankasartzea euki eban. Amaiak negar gehiago egin eban. Iratxoak ere ez ziran gelditu ezer egin barik, haserre bizian, kaiola batetara sartu ebiezan bi lagunak, baina ez uste kaiola hau motza zanik, urrez eginda egoan, eta lorez beteta, baina hain aspergarria zan lez planeatu egin eben zelan urten bertatik. Oso erraza suertatu jaken kaiolatik libratzea. Baso batetara abiatu ziran. Bertan ez zegoen iratxorik, faunoak baizik, eta honelako batekin lagun egin ziran. Faunoak Kalypso eukan izena. Kalypso maitagarria zan, indartsua, alaia; baina ikara eutsen sorginei. Halako batean...

- Erne! sorgin maltxurra dator. Goazen etxera! arin! -esan eban Faunok-

- Ez, -esan eban Jonek- nik amaituko dot sorgin maltxur horrekin, ikusiko dozue zelan. Adi egon!

Sorgina heldu zanean Jonek ura bota eutsen eta sorgina desagertu egin zuen. Faunoak eskerrak emonez jai bat antolatu eban. Ospakizunak amaitu eta gero agurra etorri zuen. Amaia negarrez hasi zuen, faunoak ere bai, eta azkenean Jone ere.

Basoa igaro eta gero mendi haundi batetara heldu ziran. Bertan zentauroak bizi ziran. Honeek ez ziran hain atseginak eta, gainera, arazo bat euken: Nor izango ete zuen errege? Hauteskundeak egiten ebezan baina bakoitzak bere buruari botatzen eutsen lez inoiz ez zuen erregerik ateratzen. Joneri arin etorri jakon burura ebazpidea. Atseginena izango zuen errege. Hau zala eta txapelketa bat antolatu eban, denetarikoa egoan, baina orduntxe, zentauro bat agertu zuen. Oso atsegina zuen lez errege izendatu eban. Zentauroak ere lagundo egin eutsen Jone eta Amaiari. Kobazulo batera sartu eta han egoan ispilua. Abots misteriozua ateratzen jakon barnekaldetik:

- Etxera itzuli, zuen gurasoak kezkatu dagoz.

Amai negarrez hasi zuen, oso alai egoalako. Ispilura barruratu ziran eta bakoitza bere etxean aurkitu zuen. Ez zuen izan amets gaizto bat, egia baizik. Orain Jonek eta Amaiak 24 urte daukez, baina ez dira ahazten mundu zoragarri haretaz.

Gorka Garcia Ariño

7. Mailako akzesita

Maria Goretti Ikastetxea

TXIRRI ETA TXEPEREN IDEIA

Udako egun guztiak euritsuak ziren Txirri eta Txeperen herrian. Jendea haserre egoan. Kaletik zehar ez egoan inor eta egun guztiak gaua zirela irudian. Txirri eta Txepe oso aspertuta egozan. Zeruko lainoak mendiak gelditu ziranetik ez ziran handik mugitu eta.

Domeka zan. Gure bi lagunak etxean egozan joku aspergarri batzuetara jolasten. Txirri oso jolukari ona zan eta joku guztietan irabazten eban.

Rinnn!! urrutizkina jotzen hasi zan.

- Nor da? -esan eban Txirrik-

- Ni naz, Peru. Gauza bat esan behar deusut. Mendi tontorrean dagozan lainoak haizerik ez dagoelako dagoz hor. Horregaitik zuek zeozer egin daikezuela pentsatu dot.

- Baina zer egin daikegu?

- Mesedez, asmatu zeozer. Turista guztiak joaten hasi dira eta herri hau fama txarra hartzen hasiko da.

- Beno, zeozer egingo dogu. Baina ez pentsa bestelako ezer egingo dogunik.

Txirri eta Txepe etxeko sotanorantz abiatu ziran. Han orduak eta orduak igaro ebezan ezer asmatu gabe. Bi egun geroago hauxe esan eban Txeppek:

- Ideia bat bururatu jat Txirri! gure lagun Peruk lainoak haizerik ez dagoelako ez dirala mugitzen esan eban, ez ba?

- Jakina, horregaitik gagoz hemen ezer egin barik.

- Tira ba, hauxe da nire asmakizuna: Guk geuk sortuko dugu aize hori, eta horrela lainoak mugitzea lortuko dogu.

Hasi eben lana. Aldizkari guztietan azaldu zan barria. Honako hau esaten ebela: **BIHAR GOIZEAN DANOK MENDIRA.**

Hurrengo egunean danok egon ziran mendi tontorrean, laino artean. Eta Txeppek ohar hau emon eban:

- Orain danok egingo dugu putz.

Danok egin eben putz, eta aize harekin hodeiak urrinera bialdu ebezan. Herria turistez bete zan ostera be.

Txepe eta Tirri meterologoak egin ziran eta hodeiak etozanean danok mendirantz bialtzen ebiezan putz egiteko eta lainoak handik urrunera bidaltzeko.

Eneritz Gorrotxategi Caballero

8. Mailako irabazlea

Kurutziaga Ikastola

ITSAS GAZIA

Ba al dakizue itsasoa ez dela betidanik gazia izan? Seguru nago askotan, hondartzan zaudetenean, galdetu diozuela zeuen buruei zergatik den gazia itsasoa. Oso simplea da, eta horren zergatia orain kondatu behar dizuedan istorioak emango dizue.

Baziren behin portu herri batetan bi anai. Bata aberatsa zen, eta itsasontzi handi eta berri bat zuen. Itsasontziko sareak berriak ziren, eta ez zuten zulorik arraiak ihes egin zezaten. Bigarren anaia berriz, pobrea baino pobreagoa zen, eta itsasontzi txiki eta ziztrin bat zuen. Bere sareek zuloak zituzten eta, gehien jota, arrai bat edo bi arrapatzea lortzen zuen. Askotan joaten zen bere anaiari diru piska bat eskatzera baina honek ez zion sosik ematen. Egun batetan anai pobrea hondartzan eserita zegoela, gizon zahar bat ikusi zuen itsasoan noraezean. Ito beharrean zegoela pentsatu zuen, beraz segituan itsasoko uretan murgildu eta gizon zaharra uretatik atera zuen. Denborarik galdu gabe, anai pobreak, bere etxera eraman zuen. Ezin zitekeen esan bere etxea gizon gaixo hura eramateko toki egokiena zenik, baina hain txarra ere ez zen. Mendizka baten gainean zegoen. Etxe bat baino gehiago txabola bat zela esan zitekeen. Egurrez, iltze idortuez, harriz eta belar sikuz egina zegoen. Egun hartan, anai pobreak, arrai bat besterik ez zuen hartu, baina ez zuen bitan pentsatu arrai hura gizon hari emateko. Gizon zaharra bere onera bueltatu zenean, arraia jan eta ur piska bat eskatu zion. Anai pobrea, egurrezko kantin bat hartu eta hondartzara jaitsi zen ur bila. Hondartzarako bidean olatuen joan-etorria aditzen zen ilargia gainean zutelarik. Anai pobreak kantina itsasoko urez bete eta zerura begiratu zuen. Bertan, Santiagorako bidea eta izar pila ikus zitekeen. Denbora gehiago galdu gabe, bere etxolarako bidea hartu eta masuzta batzuk jan zituen bidean, zuen gosea asetu asmoz. Etxera heldu zenean usain goxoa hatzeman zuen. Gizon zaharra zen eta afaria prestatzen zegoela zirudien. Gizonak buelta eman eta anai pobrea bertan harriturik ikustean hau esan zion:

- Sartu, sartu! ez zaitetz zure etxeko atean horrela gelditu.

Anai pobrea barrura sartu zen, eta afaltzen zuen bitartean gizon misteriotsu hark bere bizitza kondatu zion. Aditzera eman zionez, bera ere pobrea izandakoa zen, egun batetan nano dibertigarri bat agertu arte. Nano hark ehogailu bat eman zion. Ehogailu horrekin nahi zuena lor zezakeen. Orduan gizon zaharrak ehogailu bat atera zuen bere poltsatxotik (ez dut esan baina gizon zaharrak poltsa bat zekarren berarekin). Eta anai pobrearen eskuan jarri zuen esanez:

- Har ezazu ehogailu hau eta zerbait behar duzunean ez duzu ehogailuari eskumara eragin eta behar duzuna eskatzea besterik. Nahikoa duzunean, ehogailuari ezkerretara eman eta utzi egingo dio zuk eskatutakoa emateari.

- Eskerrik asko!

Orduan gizon zaharrak bere poltsa hartu zuen alde egiteko, baina une horretan hauxe galdetu zion anai pobreak:

- Salbatu egin zaitut, zurekin afaldu dut eta baita ere hitzegin, baina oraindik ez dakit zure izena.

- Nire izena? oso sinplea da: Brombeergeist. Eta zurea?

- Him. Himbeergeist Shladerer.

Eta Brombeergeist desagertu egin zen pago eta haritzen artetik. Orduan anai pobreak, Brombeergeist'ek esan bezala, ehogailuari etxe berri bat, itsasontzi berri bat, sare berriak eta janaria eskatu zizkion.

Biharamunean, anai pobrea izandakoa bere itsasontzi berriaretik portutik irtetzera zihoanean bere anaiarekin egin zuen topo, eta honek ea guzti hori nondik atera zuen galdetu zion. Gauean, dirudun anaia, bere anaiaren etxea joan zen misterio hura deskubritzera. Lehio batetik begiratu eta han ikusi zuen bere anaia ehogailuari afaria eskatzen eta ehogailua afari on bat ematen. Dirudun anaia, inbidiaz hiltzeko zorian zegoela, plan bat bururatu zitzaion ehogailua bereganatzeko.

Biharamunean, pobrea izandako anaia bere itsasontzian joan zen eta, bitartean, dirudun anaia pobrea izandako anaiaren etxera joan eta ehogailua ohostu zion. Bere itsasontzira igo eta altamarrera joan zen. Barazki plater eder bat jaten zegoela, soso zegoela pentsatu zuen eta sukaldeko armairura joatean gatzik ez zegoela ikusi zuen. Ehogailua hartu, eskumara eman eta gatza eskatu zuen. Gatz nahiko zuenean "nahiko" esan zion, baina ez zen gelditzen, eta gatza irten eta irten zebilen. Itsasontzia gatzen bete zen, eta pisuaren pisuz urperatu egin zen. Aspaldi merezi zuen bezala, dirudun anai ito egin zen, eta harrez gero inork ez du ehogailuaren berririk izan; baina urpean, nork jakin non, gatza jaurti eta jaurti ari da itsasoko ura gazituz.

Irune Jaio Barazar

8. mailako akzesita

Kurutziaga Ikastola

NIRE PENTSAKERETAN

Hau da hau gosea! Badirudi astebetean ez dudala jan. Eta ez ni jatuna naizelako, baina gure etxean pila bat jaten da. Zerbait jan behar, etxean zortzi bait gara: aitita, amama, aita, ama, Josu, Mikel, Egoitz eta ni. Nire amak, ni neska naizenez, lasaiagoa, atseginagoa, gozoagoa... izan nadin nahi du baina... zer egingo zaio ba!! Nire nebek erakutsita edo, haserrekorra eta kexatia bihurtu naiz. Nor ez litzateke kexatuko norbera baino nagusiagoak diren hiru neba edukita? Gauza da mila aldiz abusatu arren amak arrazoa ematen diela. Hori da aurpegia daukatena!

Gaur, politika arazoak direla eta, norbaitek huelga egitea eskatu du. Bururatu ere horrelakorik! Huelga batek ez dit ezer konpontzen eta, hala eta guztiz ere, konbokatu egiten dute. Etxekoandreak haserretu egiten dira ogirik ez dagoelako, gizonak telebistan eman behar zuten futbol partidua ikusi ezin dutelako, umore txarrez, gazteak, kabreatuta, gustatzen zaien irrati emisorak huelga jarraitzen duelako, umeak negarrez, egun horretan Poli ikusiko ez dutelako, eta politiko inozo batzuk huelga nahi. Uste dut politikoak errealitatean barik indio eta bakeroetara jolasten ari direla eta horregatik ez direla ezertaz enteratzen.

Aspergarria den egun hau nolabait igarotzeko asmoaz leihora hurbildu naiz eta paperezko hegazkin bat ikusi dut. Biraka dabil hurakan txiki baten barruan "Oz'ko aztia"ren ipuina etorri zai burura hau ikustean. Nola ez du inork sekulan pentsatu ipuin hori modernizatu egin beharko litzatekeela? Batipat biharko umeei begira, laister sorgin bat zer den jakiteko hiztegira begiratu beharko bait dute. Ume hauek ordenagailuekin jolasten eta telebista ikusten baino ez dute jakingo. Ez da nik ume batentzat nahi izango nukkeen patua.

Orain hurakan txikia panpin zahar bat dagoen lekura heldu da. Panpinari esku bat falta zaio. Bere inguruan begiratu dut ea falta zaion eskua ikusten dudan. Bai, panpinarengandik pare bat metrotara aurkitzen da. Uste but berea izango dela baina baliteke horrela ez izatea. Panpinaren begiei bizitasuna darie, nahiz eta panpin batek bizirik ez duela ongi jakin. Lelokeriak esaten ari naiz.

Ordulariari begiratu diot eta bazkaltzeko ordua dela konturatu naiz. Sukaldera joan eta mahaia jartzen hasi naiz. Egunero egiten dudan gauza bat denez, sistematikoki, pentsatu gabe egiten dut. Gaur ordea, ezin dut panpina burutik kendu. Edalontzi bat ere apurtu dut. Amak bronka bota dit baina ni enteratu ere ez naiz egin. Panpinak zergatik jotzen ditugun ezereen errurik ez dutenean, beraien mututasunaz jabetuz, nola inposatzen

diegun gure hitza... Honetan pentsatzen ari naiz. Amak platera babarrunez bete didanean, ahaztu ditut nire kezka guztiak

Dena den, gaur gauean panpinaz oroitu naiz. Baita paperezko hegazkinarekin ere. Zergatik tratatzen ditugu horren gaizki panpinak, papera, animaliak eta gauza guztiak orokorrean? Objektuek ere bizitza bat eduki dezakete. Gainera, animalien kasuan badakigu hori horrela dela. Nor naiz ni objektu baten bizitza posiblearekin bukatzeko? Eta animalia baten bizitzarekin bukatzeko? Nor, nor naiz ni hori egiteko?